

## BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4429

*EBAZPENA, 2017ko irailaren 6koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita desabantaila-egoeran dauden taldeetako kideei zuzendutako enplegurako orientazio-ekintza eta -zerbitzuak garatzeko laguntzen deialdiaren babesean emandako diru-laguntzen entitate onuradunen zerrenda. Deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko urriaren 22an egindako bileran.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2015eko irailaren 22an egindako bileran onartu zuen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekiko lankidetzan, desabantaila-egoeran dauden taldeetako kideei zuzendutako enplegurako orientazio-ekintza eta -zerbitzuak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia (zuzendari nagusiaren 2015eko urriaren 22ko Ebazpenaren bidez, 2015eko urriaren 23ko EHAAn argitaratua, 202. zk.). Diru-laguntza publikoak ematean jarraitu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, laguntza horiek emateko deialdiaren 8.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozeduraren ebazpena Lanbideren web-orrian argitaratzeaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da deialdi horren bidez emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda, horietako bakoitzak jasotako diru-zenbatekoak adieraziz.

Horrenbestez, hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2015eko urriaren 22an egindako bileran onartu zuen desabantaila-egoeran dauden taldeetako kideei zuzendutako enplegurako orientazio-ekintza eta -zerbitzuak garatzeko laguntzak emateko deialdiaren babesean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea (zuzendari nagusiaren 2015eko urriaren 22ko Ebazpenaren bidez, 2015eko urriaren 23ko EHAAn argitaratua, 202. zk.), non erakunde onuradun bakoitzari emandako diru-laguntzaren zenbatekoa adierazten baita (ikus I. eranskina).

Zenbateko horiek EGIFaren baterako finantzaketarako aurkeztuko dira (% 50), EAEko EGIF 2014-2020 programa operatiboaren edo gazte-enplegurako programa operatiboaren kargura, programa operatiboaren esparruan aukeratzen diren jardueri dagokien zatian.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 6a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

2017ko irailaren 13a, asteazkena

## I. ERANSKINA

Espediente-zenbakia	Entitatea	Diru-laguntza (eurotan)
2015/COLEC/000001	Asociacion Zubiko-Trebakuntza eta Lan Sustapena elkarte	128.112,00
2015/BT/000004	Gaztaroa Sartu Kooperatiba Elkarte	419.118,00
2015/BT/000005	Erroak (Sartu) birgizarteratzeko elkarte	6.766,00
2015/BT/000006	Asociacion de Reinsercion Social Sartu-Araba birgizarteratzeko elkarte	23.426,00
2015/BT/000008	Fundacion Secretariado Gitano fundazioa	86.122,00
2015/BT/000009	Asociacion Gitana Kale Dor Kayiko ijito-elkarte	126.854,00
2015/BT/000010	Peñascal S. Coop.	1.186.532,00
2015/BT/000011	Asociacion Gitana Kale Dor Kayiko ijito-elkarte	44.812,00
2015/BT/000012	Ehlabe-Bizkaia	310.930,00
2015/BT/000013	Asociacion de Reinsercion Social Sartu-Alava birgizarteratzeko elkarte	214.472,00
2015/BT/000014	Ehlabe-Araba	11.220,00
2015/BT/000015	Ehlabe-Bizkaia	365.976,00
	Desabantaila-egoeran dauden taldeak guztira	2.924.340,00